

Bigarren Hezkuntzarako  
gida didaktikoa



ESTEREOTIPOAK DESEGITEN:  
**MIGRATZAILEAK**  
**ETA**  
**ERREFUXIATUAK**  
#DerechosEnMovimiento



AMNESTY  
INTERNATIONAL



OXFAM Intermón

# AURRETIKO INFORMAZIOA

Mundu osoan migratzaile asko jasaten ari diren krisi humanitario larria ikusirik, Amnesty Internationalek eta Oxfam Intermonek Espainia osoko ikastetxeetan haur eta gazteekin lantzeko proposamen bat dakarkizuegu, heziketarako eta salaketarako jarduerak, hain zuzen

AMNISTÍA  
INTERNACIONAL



#YoAcojo

OXFAM Intermón



#BuscandoRefugio

## IKASGELAN MIGRAZIO-MUGIMENDUAK LANTZEKO MATERIAL ETA BALIABIDE LAGUNGARRIAK

*Estereotipoak desagitzen: migratzaileak eta errefuxiatuak izeneko gida didaktiko honen bidez, Amnesty International eta Oxfam Intermón erakundeok mundu osoko migrazio-fenomenoen ezagutzan eta azterketa kritikoan sakontzeko proposamen bat eskaini nahi dizuegu. Ikasleentzat prestatutako proposamen bat da, eta hiru lan-saiotan egituratuta dago.*

Material hau ez ezik, gai hau hezkuntzako hainbat etapatan lantzeko beste proposamen batzuk ere baditugu bi erakundeok. Aukeratu zuen behar eta interesetara hobekien egokitzen diren materialak esteka hauetan:

AMNESTY  
INTERNACIONAL



[redescuelas.es.amnesty.org/  
derechos-en-movimiento/](https://redescuelas.es.amnesty.org/derechos-en-movimiento/)

OXFAM Intermón

[oxfamintermon.org/es/educacion/  
derechosenmovimiento](https://oxfamintermon.org/es/educacion/derechosenmovimiento)

# Gida didaktikoaren HELBURUAK

1

Migratzaileen errealitatea ulertzea, baita migrazio-prozesuak sorrarazten dituzten arrazoiak ere

2

Migratzaileei buruz izan daitezkeen estereotipo negatiboak murriztea

3

Migratzaileek migrazio-prozesuetan jasaten dituzten eskubide-urrietak ulertzea

4

Migratzaileek jasaten dituzten bidegabekeriaren aurkako ekintza sustatzea

## JARDUERAK

— 4. or. —

### 1. ESTEREOTIPOA

Mundu osoan daude migratzaileak, ez Europan bakarrik!

— 8. or. —

### 2. ESTEREOTIPOA

Migratzaileak ez dira biktimak bakarrik. Gure bizitzak aldatu eta hobetzen dituzte.

— 13. or. —

### 3. ESTEREOTIPOA

Immigrazioa ez da arazo bat.



## 1. ESTEREOTIPOA

# MUNDU OSOAN DAUDE MIGRATZAILEAK, EZ EUROPAN BAKARRIK!

Bai, errefuxiatuak ez daude Europan bakarrik. Irakeko ezegonkortasunaren ondorioz, Palestinako gatazkaren ondorioz eta, batik bat, 2011n Sirian piztutako gerraren ondorioz, egoera oso latza da Ekialde Hurbilean eta Saharaz hegoaldeko Afrikan, eta egoera horrek pertsona asko behartu ditu bizitokiz aldatzera, aspaldi honetako kopururik handiena. Babes bila dabiltzan pertsonen kopurua nabarmenki handitu da: 2015ean, 11,7 milioi lekualdatu izan ziren Sirian bakarrik.

Siriak du mundu osoko errefuxiatu-krisi handiena, baina ez da errefuxiatuak dituen herrialde bakarra. Beste biztanle talde handi batzuek ere bizitokiz aldatu behar izan dute euren jatorrizko herrialdearen barruan edo handik kanpo, hala nola Myanmarrekoek, Eritreakoek, Kongoko Errepublika Demokratikokoek, Irakekoek, Nigeriakokoek, Sudangoek edo Afrika Erdialdeko Errepublikakoek.

Erdialdeko Amerikan, indarkeria areagotu egin da El Salvadorren, Guatemalan eta Hondurasen, eta, ondorioz, milaka emakumek, gizonak eta haurrak euren etxebizitzak utzi behar izan zituzten 2015ean, eta are gehiago handitu zen asilo-eskatzailleen eta errefuxiatuen kopurua: 2010ean 8.052 ziren, eta 2015ean, berriz, 109.052, beraz, % 597 handitu zen kopurua.

Garapen-bidean dauden herrialdeek edo herrialde txiroek mundu osoko 13,9 milioi errefuxiatu hartzen dituzte, hau da, errefuxiatu guztien % 86, eta kopuru hori neurritz kanpokoa da, eskualde garatuenetako herrialdeek 2,2 milioi bakarrik hartzen dituztela aintzat hartuta. Siriatik ihes egiten dutenen % 95 hiru herrialdetan banatuta daude: Turkia, Jordania eta Libano. Herrialde horiek ez dute pertsona horiei merezi duten arreta eskaintzeko baliabide ekonomikorik, ezta azpiegiturarik edo beharrezko egonkortasunik ere.

## 1. ESTEREOTIPOARI BURUZKO SAIOA. NON DAUDE MUNDUKO ERREFUXIATUAK?

Jarduerari buruzkoak:

Jarduerak bi zati ditu:

1. Eguno egoera: ikasleei ulertaraziko diegu errefuxiatuen banaketa ez dela bidezkoa munduan eta beharrezkoa dela erantzukizunak partekatzea.
2. Irtenbide posibleak: erantzukizuna partekatzeko erabil daitezkeen irtenbide posibleak aztertzen lagunduko diegu ikasleei. Amnesty Internationalen kanpainarekin eta proposamenarekin lotuko dugu.



**Beharrezko denbora: 50 minutu**



### Prestaketa eta baliabideak

- Puxikak, bost poltsatan banatuta, aurrerago adierazitako moduan (puxika kopurua alda daiteke, taldearen tainaren arabera). Garrantzitsua da zeregina burutzeko nolabaiteko ahalegina egin behar izatea, errefuxiatuen egoera ez baita batere erraza eta erronka handiei aurre egin behar izaten baitiete. Proportzioa honela ezar daiteke: 1. aukeran, puxika bakoitza 50.000 errefuxiatuen baliokidea da; 2. aukeran, 75.000 errefuxiatuen baliokidea, eta 3. aukeran, 100.000 errefuxiatuen baliokidea. 30 partaideko taldeentzat, 3. aukera gomendatzen dugu.

Taldea	1. aukera	2. aukera	3. aukera
1. Amerika	15	10	7
2. Afrika	88	59	44
3. MENA*, Turkia barne	104	70	52
4. Europa, Turkia kanpo	38	25	19
5. Asia eta Ozeania	77	51	38

\* Ekialde Hurbila eta Afrikako iparraldea

- Errefuxiatuak munduan zehar non kokatuta dauden adierazteko diapositiba bat edo papelografo bat (ikus aurrerago ageri diren kopuruak).
- Bost folio, bakoitzak talde baten zenbakia idatzita duela [1-5].
- Ikasle kopuruaren arabera, behar adina espazio.

### Lana bideratzeko iradokizunak:

1. Garrantzitsua da ariketaren lehenengo zatia osatu arte ez aipatzea zer irudikatzen duten puxikek eta ez adieraztea zer eskualdetan dauden.
2. Funtsezkoa da talde bakoitzaren kide kopurua gutxi gorabehera proportzionala izatea egokitu zaien eskualdeak egoerari aurre egin ahal izateko dituen baliabideekiko. Hala, baliabide gehien dituzten eskualdeetako taldeek gainerakoek baino kide gehiago izan behar dituzte, eta alderantziz. Hori ezinbestekoa da jendeari ulertarazteko lekualdatuta bizi diren errefuxiatu gehienak baliabide gutxi samar dituzten eskualdeetan bizi direla, eta baliabide ugari eskualdeetan, berriz, adibidez European, oso errefuxiatu gutxi bizi direla errealtatean.  
  
Adibidez, 30 partaide izanez gero, honela banatuko genituzke: 1. taldean [Amerika] 11 bilduko genituzke; 2. taldean [Afrika], 3; 3. taldean [MENA], 2; 4. taldean [Europa], 11, eta 5. taldean [Asia eta Ozeania], 3.
3. Taldeak irtenbide posibleei buruz egindako gogoetak egiaztatzeke eta Amnesty Internationalen mezuak ezagutzeko, material honetan *Abegitsua naiz* kanpainari buruz jasota dagoen informazioa erabil dezakezue euskarri gisa.

## 1. ZATIA. EGUNGO EGOERA

### 1. urratsa

#### Puxiken jarduera (10 minutu)

Espazio ireki batean bazaudete, munduko eskualdeetan bana dezakezue (mapa bat izango balitz bezala), orri zenbakiduna eskualde bakoitzari dagokion eremuan ipinita, lurrean: 1. taldea, Amerika; 2. taldea, Afrika; 3. taldea, MENA (Ekialde Hurbila eta Afrikako iparraldea); 4. taldea, Europa; 5. taldea, Asia eta Ozeania.

1. Banatu ikasleak bost taldetan, eta emaezue zenbaki bana; zutik gera daitezke, edo eseri. Talde bakoitzak munduko bost eskualde horietako bat irudikatzen du. Talde bakoitzeko kide kopurua eskualde bakoitzak dituen baliabideekiko proportzionala izango da, gutxi gorabehera. Europako eta Ipar Amerikako taldeek gainerakoek baino kide gehiago izan behar dituzte, bi eskualde horietan gainerakoetan baino baliabide gehiago baitituzte. Garrantzitsua: "Lana bideratzeko iradokizunak" atalean taldeak nola banatu ikusteko adibide bat duzue.
2. Partaide kopuruaren arabera, pare bat "behatzaile" ere izenda ditzakezue, jardueran taldez talde ibil daitezen eta zer gertatzen den beha dezaten. Inork bere taldea uzten ez duela bermatzeko ere eska diezaiekezue.
3. Banatu puxiken poltsak taldeei, bakoitzaren zenbakiaren arabera, eta azaldu talde bakoitzak bere poltsako puxika guztiak puztu behar dituela eta, era berean, zaindu egin behar dituela. Esaiezue 5 minutu dituztela puxika guztiak puzteko. Amaitzean, dauden tokian gera daitezke, denbora agortu arte.

## 2. urratsa

### Bateratze-lana eta gogoeta (20 minutu)

1. Jardueraren ostean, eskatu ikasleei dauden tokian geratzeko eta taldekideekin batera galdera hauei buruzko gogoeta egiteko (5 minutu):
  - Zertaz ohartu zarete?
  - Zer iruditu zaizue jarduera?
2. Eskatu lauzpabost ikasleri euren gogoetak azaltzeko gainerakoei. Saiatu talde desberdinetako pertsonak aukeratzeko, baita behatzaileak ere, halakorik izan bada (5 minutu).
3. Eskatu taldeei galdera honi buruzko gogoeta egiteko (5 minutu):
  - Zuen ustez, zer zerikusi du jardueran ikusitakoak munduko errefuxiatuen egoerarekin?
4. Gero, eskatu euren gogoetak gainerakoei azaltzeko. Idatzi ideia nagusiak papelografo batean edo arbelean (5 minutu).

## 2. ZATIA ZER EGINGO ZENUKE?

## 3. urratsa

### Puxikekin jarduera (5 minutu)

Esan taldeei gainerako puxikak puzean jarraitu behar dutela. Orain badakite puxikek errefuxiatuak iruditzen dituztela, eta puzean dituztenak zaintzen jarraitu behar dute. 5 minutu dituzte, eta nola egin erabaki dezakete. Utzi haiei erabakitzen. Behatzaileek behatzen jarraituko dute.

## 4. urratsa

### Bateratze-lana eta gogoeta (15 minutu)

1. Jardueraren ostean, eskatu ikasleei dauden tokian geratzeko eta taldekideekin batera galdera hauei buruzko gogoeta egiteko (5 minutu):
  - Zer gertatu da? Zer egin duzue?
  - Nola sentitu zarete?
  - Lortu duzue puxika guztiak puzean?
2. Idatzi papelografoan edo arbelean taldeek hartutako irtenbideak.
3. Amaitzeko, lotu irtenbide horiek Amnesty Internationalek *Abegitsua naiz* kanpainan proposatzen dituenekin. Zeuen burua prestatzeko eta jarduerarako oinarriko informazioa eskura izateko, erabili dosierreko informazioa eta baliabideak. Nahi dutenak kanpainan parte hartzera eta esku hartzera gonbida ditzakezue.



## 2. ESTEREOTIPOA

# MIGRATZAILEAK EZ DIRA BIKTIMAK BAKARRIK. GURE BIZITZAK ALDATU ETA HOBETZEN DITUZTE.

“Migratzaileak ez dira mehatxu, aukera baizik: balioak dakartzate, gauza eder asko dakartzate... Txirioak munduaren erreserba espiritualala dira”.

*Aita Alejandro Guerra Solalinde, Oaxaca, 2010*

Egunero-egunero, pertsona askok euren etxe, komunitate edo herrialdetik alde egitea erabakitzen dute, eta, gaur egun gertaera hori inoiz baino agerikoagoa bada ere, mundu osoan lekualdatutako pertsona ugari dagoelako, aspaldiko fenomeno da.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsaleko 13. artikuluan jasota dagoenez, pertsona orok du askatasunez mugitzeko eskubidea, baita bere herrialdetik irteteko ere. Jatorria uztea erabakitzen dutenek, jazarpenak jasan ala ez, atzean uzten dituzte senideak eta bizitza-proiektuak, baina eurekin dakartzate euren ohiturak eta ezagutzak, harrera tokiari eskaini diezazkioketen esperientzia profesional eta pertsonalak. Gizartean bada joera bat pertsona horiek biktimatzat ikusteko, egoera jasanezinetatik salbatu beharreko biktimatzat, eta zenbait hedabidek eta gobernuak hedatu eta sustatu egiten dute ikuskera hori.



Idea horretatik oso urrun dago Ghias Aljundi, duela 18 urte Erresuma Batua ihes egin zuen siriarra.

*Inork ez zuen Siriatik alde egin nahi. Tartusekoak gara, kostalde mediterraneoan kokatuta dagoen hiri eder batekoak. Baina lau urte igaro nituen espetxean, eta torturatu egin ninduten, kazetari gisa eta giza eskubideak babesteko egindako lanagatik. Hortaz, Erresuma Batua etorri nintzen, ihesi, 1999an". Urtebete darama Greziara iristen diren errefuxiatuei laguntzen boluntario gisa. "Ongietorria egiten zaienean, itxaropentsu sentitzen dira; hori behar dute, beste edozeren gainetik. Onartuak sentitzeko beharra dute, jendea gogaitzen ez dutela sentitzeko beharra. Horrek gizatasuna eta duintasuna itzultzen dizkie*

Migratzaileek ekarpen soziala, ekonomikoa eta kulturala egiten diete harrerako gizartei, eta ekarpen hori funtsezkoa da herrialde hartzaileentzat. Herrialdeen garapen ekonomikoan laguntzen dute, baita ongizate-estatuaren eraikuntzan, emakumeen lan-munduratzean eta biztanleen mantenuan ere. 2015eko migrazioei buruzko txostenean, Migrazioen Nazioarteko Erakundeak (MNE) aipatzen du zenbait ikerlanek frogatzen dutela migrazioak eragin eraldatzailea izan dezakeela eta pobrezia murrizten lagun dezakeela, baldin eta pertsonen toki askorekiko loturetan eta mugikortasun zirkularreko ereduetan oinarritutako biziraupen-estrategiak erabiltzen badituzte. Estatuak ez dituzte aintzat hartzen pertsona horien ekarpenak, nahiz eta Nazio Batuen Erakundeak eta nazioarteko beste organismo batzuek nabarmendu duten beharrezkoa dela horiek migrazio- eta garapen-agenda nazional eta globalerako ardatzetako bat izatea.

## 2. ESTEREOTIPOARI BURUZKO SAIOA.

"BIZITZAK EZAGUTZEN" (IKERKETA-LANA)

### Jarduerari buruzkoak:

Jarduera honen oinarria ikasleek taldeka egingo duten ikerketa-lana izango da, eta, haren bidez, gizartean migrazioari buruz dauden estereotipo eta aurreiritziekin lotutako alderdiak landuko ditugu ikasgelan, baita errefuxiatuen gaineko gaurkotasuna ere.



**Beharrezko denbora**  
45-60 minutuko bi saio



## Prestaketa eta baliabideak

- Ikasleek (lauzpabost kideko taldetan) euren auzoan edo ikastetxean migrazioari buruz egin beharko duten ikerlana izango da jarduera honen abiapuntua. Talde guztien lanak bateratuko ditugu. Helburua zera da, migratzaile baten (lehenengo edo bigarren belaunaldikoa) bizitzaren kontakizuna prestatzea, eta gero lana gainerakoekin partekatzea eta migratzaileei eta errefuxiatuei buruz genuen iritzia (estereotipoak eta aurreiritziak) aldatu ote den eztabaidatzea.

### Lana bideratzeko iradokizunak:

Ikasleentzat, ikerketa-metodo erraz eta erakargarriena elkarrizketa da. Bi aukera daude tailer hau egiteko:

1. Ikastetxeko norbaiti egin diezaiokete elkarrizketa, edo auzoko norbaiti, edo senideren bati...
2. Ikastetxeak hala eskatuz gero, Amnesty Internationalek zenbait erakunderekin harremanetan jartzen lagun diezaioke, migratzaile batek edo errefuxiatu batek eman dezan saioa eta berak bizitakoa konta diezaien ikasleei.

Kontuan izan jarduera hau egiteko bi saio beharko dituzuela: saio bat taldearekin ikerketa prestatzeko (laburtu egin daiteke, edo hainbat saiotara luzatu), eta beste saio bat taldeek ikerlana azaltzeko. Jarduera egokitu egin daiteke, bai denborari dagokionez, bai ikerlanak aurkezteko formatuari dagokionez.

## 1. ZATIA: IKERKETA PRESTATZEN

### 1. urratsa

#### Aurkezpena (5 minutu)

Banatu ikasleak lauzpabost pertsonako taldetan. Aipatu, labur-labur, zenbat denbora izango duten ikerlana gauzatzeko (astebete edo bi aste) eta noiz aurkeztuko duten lana ikasgelan.

### 2. urratsa

#### Geure burua prestatzen (25 minutu)

1. Banatu talde bakoitzari IKERKETAREN AURREKO GALDERAK fitxa.
2. Azal iezaiezue saio honetan elkarrizketa egiten lagunduko dien galdera-sorta edo gidoia prestatu beharko dutela.
3. Jakinaraz iezaiezue noiz aurkeztu beharko duten lana.

---

## 3. urratsa

### Beste talde batzuegandik ikasten (15 minutu)

1. Saioarean amaieran, bateratu talde guztien lana. Talde batek prestatutako galderak baliagarriak izan daitezke beste talde batentzat.
2. Banatu talde bakoitzari AHAZTU EZIN DITUZUEN GALDERAK fitxa.

**2. ZATIA:**  
IKERLANAK  
PARTEKATZEN

---

## 4. urratsa

### Ikasitakoa partekatzen (50 minutu)

1. Aukeratu egun bat edo batzuk, talde bakoitzak bere lana aurkez dezan.
2. Zehaztu zer hurrenkeratan egingo duten taldeek aurkezpena.
3. Argitu aurkezpenerako hainbat formatu erabil daitezkeela: Power Point dokumentu bat, elkarrizketako zati garrantzitsuenak bilduko dituen bideo editatu bat, komiki bat edo horma-irudi bat.

### **Elkarrizketaren aurretik kontuan hartu beharrekoak**

Ikerketa-lan honen helburua da euren jaioterritik alde egitea erabaki duten pertsonen istorioa ezagutzea. Horregatik, entzutea eta behaketa dira tresna nagusiak.

Hasi aurretik, beharrezkoa da:

- Pertsona adierazgarri bat bilatzea, elkarrizketari erantzun diezaiokeena.
- Oinarrizko bizi-baldintzei buruz ikertzea: osasuna, kultura, giro soziala.
- Haren kulturari eta jaioterriari buruzko alderdiak kontuan hartzea, eta herrialdeari buruzko informazioa biltzea, baita hango bizi-baldintzei buruzkoa ere.
- Zereginak banatzea: nork bilatuko duen informazio orokorra, nor jarriko den harremanetan elkarrizketatu behar den pertsonarekin, nork egingo dituen galderak, etab.

Elkarrizketa egitean:

- Garrantzitsua da elkarrizketari erantzungo dionarentzat eroso eta segurua den toki bat aurkitzea.
- Elkarrizketa grabatzeko baimena eskatzea eta xehetasun guztiei erreparatzea, haren istorioa eraldatu gabe. Gainera, grabaketa horrek aurkezpenerako bideo bat prestatzeko balio dezake.

**Jarduerarako baliabide osagarriak:**

- Zein da zure jaioterria?
- Zer arrazoiengatik utzi zenuen jaioterria?
- Giza eskubideren bat urratuta zenuen bertan? Zein?
- Duela zenbat iritsi zinen hona?
- Asko kostatu zitzaizun erabakia hartzea?
- Zer bizi izan duzu, zure herria eta familia atzean utzi zenituenetik?
- Zer zailtasun eta erraztasun izan dituzu bidean?



### 3. ESTEREOTIPOA

# IMMIGRAZIOA EZ DA ARAZO BAT

Migratzaileei buruzko eztabaida publikoan, iritzi negatiboak gailentzen dira, nahiz eta beti ez diren izaten gehiengoaren iritziak. Giza eskubideei begira hartutako konpromisoen arabera, gobernuek migratzaileak, errefuxiatuak eta euren jaioterrietatik ihesean dabiltzan pertsona guztiak babestu behar dituzte, eta haien oinarrizko eskubideak ez urratzea zaindu behar dute.

Zenbait gobernuk laguntza eske iristen diren pertsonen gaineko ikuspegi negatiboa zabaldu dute, delinkuentziarekin eta gatazkekin lotu baitituzte, eta, beldurra hedatzeaz gain, nazioarteko babesaren behar duten pertsonen sarrerari eta harrerari begirako neurri murriztaileak hartu dituzte. Argudiatzen dute ez dutela baliabiderik erantzukizuna partekatzeko, baina haiek baino baliabide gutxiagoko herrialde gutxi batzuek milioika errefuxiatu hartzen dituzte. Beldurraren arrazoibide gisa, komunitateek eta eskolek gainezka egingo dutela argudiatzen dute, eta herritarrentzako zerbitzuak kolapsatu egingo direla. Estatuak ezin dituzte krisi-egoerak baliatu giza eskubideen arloan dituzten erantzukizunak eta betebeharrak saihesteko, baina, hala ere, errefuxiatuen mundu-krisiak segurtasunean eta aldebakartasunean oinarritutako erantzunak sendotzeko balio izan du, giza eskubideetan oinarritutako erantzun kolektibo bat bideratzeko balio ordez.

Zenbait estatuk disuasio-politikak eta errefuxiatuen nahiz asilo-eskatzaileen etorrera blokeatzera bideratutako neurriak lehenesten jarraitzen dute, eta, era berean, babesaren erantzukizuna lekualdatzeen ondo-ondoko eskualdean edo haren periferian kokatuta dauden herrialdeen esku uzten dute. Horrek berekin ekar dezake, besteak beste, pertsona horiekiko arrazakeria eta xenofobia areagotzea.

Amnesty Internationalek egoera ekonomiko eta kultural desberdineko 27.000 pertsonari galdeketa bat egin ziezaiela eskatu zion GlobeScan izeneko ikerketarako aholkularitzari. 27 herrialdetan egin zuten galdeketa, Errefuxiatuekiko Ongietorri Indizea aintzat hartuta, helburutzat zutela jakitea zer hurbiltasun mailarekin onartuko lituzkeen jendeak errefuxiatuak [etxean, auzoan, herrian, herrialdean] edo sarrera ukatuko ote liekeen. Emaitzek erakusten dute babes maila handia dutela errefuxiatuek mundu osoan:

- % 80k herrialdean hartuko lituzke.
- Horietatik % 40k etxean edo auzoan hartuko lituzke.
- % 17k bakarrik debekatuko lieke herrialdean sartzea [% 80k besoak zabalik hartuko lituzke errefuxiatuak herrialdean].

Mundu osoan, hiru pertsonatik bik [% 66] uste dute euren gobernuek ahalegin handiagoa egin behar dutela errefuxiatuei laguntzeko. Horixe uste dute, adibidez, Jordaniako biztanleen % 84k, Alemaniako biztanleen % 76k eta Greziako biztanleen % 74k. Kenyan, non ia 600.000 errefuxiatu bizi diren [horien artean Somaliatik iritsitako 413.000 pertsona], biztanleen % 65 bat datoz iritzi horrekin.

Galdeketa erantzun zioten 27 herrialdeetatik 9k bakarrik hartu dute siriarrak jatorriko 4,8 milioi errefuxiatuetako batzuei abegi egiteko konpromisoa, baina guztien artean 174.000 pertsona inguru baino ez dituzte hartu.

Ikerlanak adierazten du herritarrak errefuxiatuei ongietorria egiteko prest daudela eta haien aurkako diskurtso politikoa ez datorrela bat iritzi publiko orokorrarekin.

### 3. ESTEREOTIPOA LANTZEKO SAIOA ETIKETAK JARTZEN

#### Jarduerari buruzkoak:

Jarduera honen helburua da ikasleei gogoeta eginaraztea errefuxiatuei buruz dituzten iritzien gainean.

Jarduera hiru urratsetan egingo dugu. Lehenengo urratsean, ikasleek zenbait etiketa –aldez aurretik idatzi dituztenak guk proposatutako galdera batzuei erantzunez– ipiniko dituzte beste herrialde batetik iritsitako pertsona bat irudikatzen duen silueta batean. Bigarren urratsean, zenbait migratzailearen istorioa kontatzen duten fitxa batzuk banatuko ditugu, gero alderatzeko. Hirugarren urratsa jarduerari buruzko amaierako gogoeta egitea izango da.



**Beharrezko denbora:**  
45-60 minutu



## Prestaketa eta baliabideak

- Paper jarraitua.
- Errotuladoreak/koloretako arkatzak.
- Zelo-papera.
- Baliabide osagarriak: Rubimbo Bungweren poema.
- Baliabide osagarriak: Kasuen txartelak.

### Lana bideratzeko iradokizunak:

Baliteke siluetak egitean [1. urratsa] ikasleek gizonezkoenak irudikatze joera izatea. Ikasgelan generoaren ikuspegia kontuan hartzeko, bi aukera daude:

1. Eskatu talde batzuek emakumezkoen siluetak marraztu ditzatela eta beste talde batzuek, berriz, gizonezkoenak.
2. Zehaztapen hori egiten ez baduzue eta silueta guztiak gizonezkoenak badira, bateratze-lanean egin horri buruzko galderaren bat: “Zuen ustez, zergatik dira silueta guztiak gizonezkoenak?”. Gogoeta eginarazi galderaren gainean.

## 1. urratsa

### Taldearen aurreiritziak eta estereotipoak jakitera ematea (15 minutu)

Banatu ikasleak lau kidetik zazpita bitarteko taldetan, eta eman talde bakoitzari 1,5 metroko papelografo bat, errotuladoreak eta orri ebakiak [gutxienez zortzi “etiketa”].

Eskatu taldeei pertsona baten silueta marraztu dezatela papelografoan:

- Hau idatzi beharko dute papelografoaren goiko aldean: “Pertsona migratzailea”.
- Etiketetan, pertsona horiei egozten dizkieten ezaugarriak/adjektiboak idatzi beharko dituzte, eta siluetaren inguruan itsatsi beharko dituzte.

---

## 2. urratsa

### **Ez ditut atsegin nire etiketak! (10 minutu) eta Istorio errealak ezagutzen (15 minutu)**

Euren herrialdeetan edo harrerakoetan aldaketarako eragile aktibo izan diren edo diren pertsonen kasu errealak edo asmatuak landuko ditugu, ikasleen hasierako ikuspegia aldatzeko.

Banatu talde bakoitzari RUBIMBO BUNGWEREN POEMAREN kopia bat, eta eskatu hari buruz hitz egin dezatela 10 minutuz:

- Papelografoaren goiburua zirriboratu beharko dute, eta izena jarri beharko diote marraztu duten migratzaileari.

Banatu talde bakoitzari KASUEN TXARTEL bat, migratzaile baten istorioa kontatzen duena, eta esan 15 minutu dituztela alderdi hauek lantzeko:

- Zer ezaugarri dituen txarteleko pertsonak; zer iradoki dien irakurri duten istorioak; zer egin dezaketen euren komunitatean errefuxiatuei abegi hobea egiteko; zer ekarpen egin diezaioketen errefuxiatuek hartzen dituen gizarteari, eta ea aldatu den migratzaileei buruz zuten iritziren bat.
- Berriz irakurriko dituzte siluetan itsatsitako etiketak, eta migratzaileei buruz pentsatzen zutena zerbaitetan aldatu ote den azaldu beharko dute. Hala izanez gero, biratu egin dezakete etiketa, eta atzealdean idatzi lehen kontuan hartu gabeko ezaugarria.

---

## 3. urratsa

### **Bateratze-lana (10 minutu)**

Egin 2. urratsa bateratzeko lana: eskatu taldeei etiketetan egindako aldaketak azaltzeko eta saioan zehar nola sentitu diren adierazteko. Galde iezaiezue zer iruditu zaien jarduera eta ea ezagutzen duten kasuren bat euren komunitatean. Amaitzeko, egin landutako guztiaren gaineko gogoeta txiki bat.



**Rubimbo Bungweren poema**




*“Errefuxiatua”, Rubimbo Bungwe, 14 urte.  
Zimbabwe, 2002*

Eta orduan izen berria nuen: errefuxiatua.  
Arraroa da izen batek neure buruagandik urruntzea,  
nire iraganetik, nortasunetik eta itxaropenetik.  
Arraroa da errefuxiatu hau.  
Antza, asko dauka partekatzeko izenak: errefuxiatua.  
Oraindik desberdintasun ugari partekatzen ditugu.  
Ez dut gustuko nire izen berria.  
Nire iragana partekatu nahi dut, nire buru-estimua/  
duintasuna indarberritu,  
eta erakutsi. Nik ere, denbora igaro ahala, hartutakoa  
baino gehiago eskainiko dut.  
Oraingo, lortu nahi dudana kontsolamendua  
aukeratu dudana izen zahar oraindik berria  
dago: laguna.

**Kasuen txartelak [18. eta 19. orrialdeak]**

Migratzaileen istorio hauek fikziozkoak dira, nahiz eta Amnesty Internationalek antzeko kasu batzuei buruz ikertu duen herrialde horietako batzuetan.



### 1. istorioa: ALIAH

Aliah 21 urteko israeldar biolinista bat da, Jerusalemen jaioa familia kristau batean. Gurasoek produktu ekologikoen denda bat zuten, baina duela hiru urte itxi egin behar izan zuten. Aurrezki batzuk zituzten, eta Argentinara joatea erabaki zuten. Aitaren senide batzuek herrialde hartara emigratu zuten, eta oso harrera ona izan zutela kontatu zieten. Israelen, biztanleen % 4 bakarrik dira kristauak, eta Aliahren gurasoek kristautasuna gehiengoan erlijioa den gizarte batean bizi nahi zuten. Aliahk 12 urte zituenetik 18 urte bete arte ikasi zuen musika bere hiriko kontserbatorioan. 19 urte zituela, Jerusalemgo Orkestra Filarmonikoak kontratatu zuen, zenbait ordezkapen egiteko, eta 20 urterekin biolinista postua lortu zuen. Institutu publiko batean ikasi zuen, hainbat kultura eta erlijiotako jendearekin. Gurasoek tokiko agintariekin eta elkarteekin errefuxiatuei ematen dieten laguntza jaso zuten. Hasieran gogorra izan zen, baina pixkanaka haien egoera hobetuz joan zen. Aliah Buenos Airesera joan zen gurasoekin, eta urtebeteren buruan independizatu, eta Quitora joan zen bizitzera; bertako orkestra filarmonikoak kontratatu zuen. Aurten, hezkuntza-erakunde batean laguntzen hasi da: tolerantziari, erlijioen historiari eta kulturantzatasunari buruzko hitzaldiak ematen ditu.



### 2. istorioa: VÍCTOR

Víctor 25 urteko gorputz-hezkuntzako irakaslea da. 2010ean Mexikon lan egiten zuen, Jalisco. Gobernu-aldaketa gertatu zen orduan, eta aldaketa horrek berekin ekarri zuen ustelkeria handia, eta lanetik bota zuten. Familia xume bateko kide izanik, Víctor ez zuen izutzen bizitza aldatzeko emigratu behar izateak. Víctorrentzat, egoera jasanezina bilakatu zen Jalisco, eta handik alde egitea erabaki zuen, bizimodu hobe bati ekiteko itzaropenez, pobreziatik urrun. Haren egoerak okerrera egin zuenean, Bostonera joatea erabaki zuen. Haren arreba errefuxiatua izan zen, eta han bizi izan zen zenbait urte lehenago. Bostonera iritsita, pertsona latindarren elkarte batean bilatu zuen laguntza, eta euren jaioterria hainbat arrazoirengatik utzi zuen jendea ezagutu zuen bertan. Denbora tarte bat behar izan zuen bizimodu berrira moldatzeko, nahiz eta asko gustatu zitzaion antzeko esperientzia izan zuten pertsonekin hitz egitea. Era berean, lana aurkitzea pixka bat kostatu bazitzaion ere, azkenean arazorik gabe moldatu zen, pertsona saiatua eta baikorra baita. Gaur egun, gazteei hezkuntza-elkarteak sortzen laguntzen dien elkarte batean laguntzen du.



### 3. istorioa: ANDREA ETA MARCUS

Andrea eta Marcus Freetownen bizi ziren, Sierra Leonan. Andrea giza baliabideen arloko burua zen hiriaren kanpoaldean kokatuta zegoen arkitektura-enpresa batean. Eta Marcusek Odontologia ikasi zuen hiriko unibertsitatean, eta kalifikazio onak lortu zituen. 2005ean lizentziatu zen, eta 2006an kontsulta bat ireki zuen, lankide batzuekin batera. Ezkonduta daude, eta hiru urteko alaba dute: Marta. 2014. urtera arte, ez zitzairen inoiz burutik pasatu eurek ere alde egin behar izango zutela euren etxetik. Egun batean, Andea lanetik bota zuten, eta Marcusek negozioa itxi behar izan zuen. Zorionez, lagun batzuek emigratzea proposatu zieten, eta, egoera aztertu ostean, Birmaniara alde egitea erabaki zuten. Txartel bat lortzeko ordaindu zuten, baina engainatu egin zituzten, eta ez zekiten ez bizirik aterako ziren, ez zer etorkizun izango zuten. Birmaniara iritsi zirenean, zuzenean ezagutu zuten errefuxiatuen drama. Zorte handia izan zuten, egoera hura errazteko laguntza jaso baitzuten zenbait pertsonaren eskutik. Urtebeteren buruan, Marta eskolara joaten hasi zen, eta gaur egun oso lekukotuta dago bere hiri berrian. Andrea eta Marcusek izena eman zuten adineko pertsonari laguntzen aritzen den elkarte batean.



### 4. istorioa: DRAZAN

Drazan 29 urteko thailandiarra da, eta Politika Zientziak ikasi zituen. Hiriko bigarren alderdi politiko garrantzitsueneko kidea zen, eta modu aktiboan laguntzen zuen komunitateko elkarte politikoetan. Pertsona askoren moduan, pairatzen ari zen gizarte-bazterkeriaren eta marjinaltasunaren aurka borroka egitea erabaki zuen, eta Alemaniara alde egin zuen. Gogoan du zer-nolako elkartasunik eza izaten den gizartean, baina argi du berak harrera ona izan duela, ezagutzen baititu zenbait pertsona aurrera egiteko aukerarik izan ez dutenak ez dutelako laguntza egokia jaso. Ia urtebetez izan zen errefuxiatua, ehun-lantegi batean lana lortu zuen arte. Dirua aurreztu zuenean, unibertsitateko master batean matrikulatu zen, eta tokiko erakunde politiko bateko kide egin zen. Komunitateko bitzta publikoan parte hartzeari ekin zion, eta duela bi urte hiriko oposizioko alderdiko gobernu-taldeko aholkulari hautatu zuten.

ESTEREOTIPOAK DESEGITEN:  
**MIGRATZAILEAK**  
**ETA**  
**ERREFUXIATUAK**  
#DerechosEnMovimiento

**Egiletza:** Amnesty International eta Oxfam Intermon  
**Diseinua eta edizioa:** Estudi Lluís Torres  
**Hizkuntza zuzenketa:** Susana Díaz  
**Euskarazko itzulpena:** Maialen Oliveri

**AMNESTY**  
INTERNATIONAL



**OXFAM** Intermón